

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 15/2019 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan natura muga eta bestelako muga zehatzak dituzten nekazaritza ustiatzei zuzendutako laguntzen oinarri arautzaileen aldaketari eta haien 2019rako deialdiari, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren esparruan**

Aldatzea nekazaritza ustiatzeietarako laguntzen oinarri arauak, Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 37/2016 Foru Dekretuaren bidez muga naturalak eta Arabako Lurralde Historikoaren berezko beste muga batzuk dituzten eremuetarako onartu zirenak, Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 programaren esparruan, eta, halaber, onestea laguntza lerro horren 2019ko deialdia.

Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 37/2016 Foru Aginduaren bidez onetsi ziren muga naturalak eta Arabako Lurralde Historikoaren berezko beste muga batzuk dituzten eremuetako nekazaritza ustiatzeietarako laguntzen oinarri arauak, 1305/2013 Erregelamenduan ezarritako mugen barruan. Laguntza horiek "Mendialdeko eskualdeetako konpentsaziozko ordainketak" (13.1) eta "Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestelako gune behartsuei zuzendutako konpentsazio ordainketak" (13.2) neurri gisa daude identifikatuta Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 programan. Aipatutako foru dekretuaren bidez, laguntza lerro horien 2016ko deialdia ere egin zen.

Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 14ko 13/2017 Foru Dekretuaren bidez, aldatu egin ziren laguntza horien oinarri arauetako batzuk, eta onetsi, 2017rako deialdia.

2017ko maiatzaren 30ean, Europako Batzordeak, C(2017) 3859 Ebazpenaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 programaren bigarren aldaketa onartu zuen. Aldaketa horrek zati batean eragin zion laguntza lerro horri eta, ondorioz, Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 20ko 9/2018 Foru Dekretuaren bitartez, aldatu egin zen aipatutako aldaketara egokitzeko, eta, horrez gain, 2018rako deialdia onetsi zen.

Egun, dirulaguntza horiek jasotzeko, besteren artean, bi betekizun hauek eskatzen dira: batetik, eskatzaileak eskaera bakarra aurkeztu behar du eta han agertu behar dira onargarriak diren bi hektarea, gutxienez; bestetik, onuradunak ezin du inolako erretiro pentsiorik jaso. Euskal Autonomia Erkidegoko landa garapenerako 2015-2020 programan ez dira bi betekizun horiek eskatzen eta, hortaz, oinarri arautzaileetatik kendu behar dira.

Bestalde, kontuan izanik kreditu nahikoa dagoela laguntza lerro hori izapidetzeko Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko gastu aurrekontuan, beharrezkoa da urteko deialdia onestea.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea aldaketak egitea Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 10eko 37/2016 Foru Dekretuak ezarri zituen eta Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 14ko 13/2017 Foru Dekretuak eta Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 20ko 9/2018 Foru Dekretuak aldatu zituzten laguntzen oinarri arautzaileak, zeinen xede baitira "Mendialdeko eskualdeetako konpentsaziozko

ordainketak” (13.1 ) eta “Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestaldeko gune behartsuei zuzendutako konpentsazio ordainketak” (13.2) neurriak.

Pertsona fisiko onuradunen betekizunak arautzen dituen 4.1 artikuluko 1.e) apartatua aldatzea eta f) apartatua kentzea. Honela idatzita geratzen dira:

4.1 Pertsona fisikoak:

a) Nekazaria izatea titulu nagusi gisa (TNG). Horren ondorioetarako, beharrezkoa izango da PFEZaren aitortpena aurkeztuta izatea.

b) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla frogatzea.

c) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izapidetutako zehapen edo itzulketa prozedura batean ez egotea.

d) Ez jaso izana administrazio zehapenik ez zehapen penalik sexua dela-eta diskriminazioa eragin izanagatik, eta debekua jaso ez izana emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen ondorioz (4/2005 Legea, otsailaren 18koa).

e) Eskaera bakarra egitea.

Bigarrena. Dirulaguntza lerro honetarako deialdia onestea 2019. urterako (LGNEFek jartzen du dirulaguntzen finantzaketaren ehuneko 75), honako ezaugarri hauekin:

– Laguntza lerroak:

– Mendialdeetako konpentsaziozko ordainketak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren 13.1. neurria).

– Natura muga nabarmenak dituzten guneei edo mendialdeez bestelako gune behartsuei zuzendutako konpentsaziozko ordainketak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren 13.2. neurria).

– Epea eta tokia: Laguntza eskaerak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren eskualdeko nekazaritza bulegoren batean aurkeztuko dira, eskaera bakarra aurkezteko ezarri den epean (2019ko otsailaren 1etik apirilaren 30era arte, biak barne).

Eskaera bakarra aurkezteko epe hori luzatuz gero, berez eta besterik gabe beste horrenbeste luzatuko da laguntza lerro hauetarako eskaerak aurkezteko epea.

– Kreditu erreserba: 1.450.000,00 euro, “Gune behartsuak konpentsatzeko kalte-ordainak” izeneko 40.1.01.42.01.479.00.04 partidaren kontura, Arabako Foru Aldundiak 2019rako luzatutako 2018 ekitaldirako gastu aurrekontutik.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzel buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horien zenbatekoa neurri bakoitzerako hasiera batean gorde den kredituarena bestekoa izango da, gehienez.

Kreditu handitze hori hala dagokionean eta bi neurrietarako behar denean egingo da, hasierako kredituaren neurri berean. Bestalde, neurriren batean soberakina geratzen bada, beste neurri zuzendu ahal izango da, beharrezkoa bada.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteko deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren berraztertze errekurtsu guztiak ebazteko.

Laugarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2019ko martxoaren 21a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**M<sup>a</sup> ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE**